# LANA EMATEN DIEGU

# BERAZ, ZERGATIK DIRA KEXU?

ETA ZER ESKAINTZEN ZAIE?

LANGILEA BEHAR DUGU:

**ETXEKO LANGILE EGOILIARRA, BIKOTE BAT ZAINTZEKO:**

- Esperientziaduna, arduratsua eta langilea
- Atsegina, gozoa, adeitsua eta garbia
- Dokumentazioa behar bezala duena
- Seme-alabak kargura ez dituena
- Erabateko prestasuna duena
- 12 ORDUKO lanaldiak egiteko

SOLDATA: **GUTXIENEKOA**

APLIKATU >



FAMILIA ASKOK EMAKUME ETORKINAK KONTRATATZEN DITUZTE ETcXEKO LANGILE EGOILIAR IZATEKO, EGOITZA BAT BAINO MERKEAGO ATERATZEN ZAIELAKO.

ETXEKO LANGILE EGOILIARREN % 98 EMAKUME ETORKINAK DIRA, MUNDUBAT 2018

# Zergatik gara kexu?

Robot baten antzera lan egiten dut; hara eta hona nabil, gora eta behera, lo gutxi eginez, atsedenik batere hartu gabe... Zaintzen ditudan familiak dira nire bizitzaren ardatza, eta ni ez naiz bizi.




ETXEKO LANGILE EGOILIAR GEHIENOK ASTEAN **60-80 ORDUZ EGITEN DUGU LAN** (ATH-ELE, 2020)

# MINGARRIA DA GURETZAT...



GU BEHARREZKOAK IZATEA, BAINA GUTAKO ASKOK KONTRATURIK GABE LAN EGITEA, GIZARTE-SEGURATZAN ALTA HARTU GABE ETA, NOSKI LANGABEZIA JASOTZEKO ESKUBIDERIK GABE.

ETXEKO LANETAN GURE ESKUBIDEAK BERMATUTA EZ EGOTEA

ATSEDENIK EZ HARTZEAREN ONDORIOZ GAIXOTZEA. ETA GURETZAT EZ DA ERRAZA IZATEN

GURETZAKO GELA PROPIORIK EZ IZATEA, EZ ETA PRIBATUTASUNIK ERE

# MINGARRIA DA GURETZAT ERA BEREAN... ZENBAIT FAMILIATAN

GURE KULTURAK, GAITASUNAK ETA SINESMENAK GUTXIESTEA

GUREKIN EZ FIDATZEA ETA JATEN DUGUNA ERE KONTROLATZEA

UMILIATUAK IZATEA ETA SEXU-ERASOAK ERE PAIRATZEA

BESTE LAN BATZUK LORTZEKO DISKRIMINAZIOA JASATEA



# MINA POLITIKOA ERE BADA

ATZERRITARREI BURUZKO LEGEA ETA ETXEKO LANARI BURUZKO LEGEA MINGARRIAK DIRA GURETZAT; DISKRIMINAZIOA ETA ARRAZAKERIA MINGARRIAK DIRA GURETZAT




## Gure minak

KAPITALISMOAREN, KOLONIALISMOAREN ETA HETEROPATRIARKATUAREN ONDORIO DIRA



# ZER DA SENDAGARRIA GURETZAT?

BORROKA EGITEA,
zaintza-lanak ardura sozial eta politiko partekatua izan daitezen

familiei eta langileei laguntzeko

# HORREGATIK, ALDARIKAPEN HAUEK EGITEN DITUGU:

1. ATZERRITARREI BURUZKO LEGEA MALGUTZEA
2. GIZARTE-SEGURANTZAN ALTA HARTZEA
3. KONTRATUAK IZATEA, ETA HAIETAN ORDUTEGIA, SOLDATA ETA ZEREGINAK ONGI ZEHAZTUTA EGOTEA
4. LANGABEZIA JASOTZEKO ESKUBIDEA IZATEA
5. LANEKO ARRISKU FISIKO ETA EMOZIONALEN PREBENTZIOA EGITEA
6. BIZITZA PROPIOA IZATEKO ETA LANA FAMILIAREKIN BATERAGARRI EGITEKO ESKUBIDEA IZATEA
7. BESTE LAN BATZUK ESKURATZEKO ESKUBIDEA IZATEA




QUAN ZHOU

ZAS!
Zurrumurruen Aurkako Sarea | Red Vasca antiRumores

Bizkaia
enplegua, gizarte inklusioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, inclusión social e igualdad

ELLACURIA FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL